

# Lurralde bat; hainbat hizkuntza, hainbat modu

**Koldo Telleria Andueza**

*EHU/ UPV Euskal Herriko Unibertsitatea*

*koldo.telleria@ehu.es*

Sarrera-data: 2014-04-15/ Onartze-data: 2014-06-05

**Laburpena:** Egungo hirigintza eta lurralde antolamenduak botere kapitalistarekin duen hartu emanaren ondorio dira azken 50 urteetan gure lurraldeak pairatu dituen eraldaketa sakonenak. Lurralde antolaketa eta hirigintza modu berrien bila, parte hartzea oinarri duen lan egiteko moduen praktikatik eta Zaldibarko Hirigintza Araudiaren Plan Orokorra idazterakoan eginiko ikerketa parte hartzailean oinarrituriko lanaren ondorioak aurkezten dira hemen. Ikuspuntu sistemikoa, konplexutasuna, ekologia politikoa, soziologia eta antropologia ekologikoa eta genero ikuspuntua txertatu dira ikerketarako ikuspuntu moduan. Artikulu honetan hirigintza modernoa garatzen joan den ehinean erabakitze boterea noren esku egon izan den aztertuta da lehenik. Ondoren hirigintzan erabakitze boterea herritarrekin elkarbanatzean eginiko ikerketaren markoa azaltzen da eta bertatik ateratako ondorio eta etorkizuneko ikerketarako lan lerroak aurkezten dira. Hizkuntza ezberdinek osatzen dituzten sozio ekosistemek lurralde berberarekin dituzten hartu eman eta egiteko moduak ezberdinak direla antzeman da. • **Hitz-gakoak:** *Hirigintza, Lurralde antolamendua, Parte-hartzea, Hizkuntzak, konplexutasuna, Sozio-ekosistemak, ekologia politikoa, soziologia ekologikoa, antropologia ekologikoa, generoa hirigintzan.*

**Abstract:** The deep transformations our territory has suffered over the last 50 years are the result of the relationship that today's town planning and spatial planning have had with capitalist power. In the quest for new forms of spatial planning and town planning, this article presents the practices of participation-based ways of working and the conclusions of the work based on the participatory research carried out during the drafting of the General Town Planning Regulations Plan of Zaldibar, a town in Bizkaia. The systemic perspective, complexity, political ecology, sociology and ecological anthropology and the gender perspective have been incorporated into the approach taken by the research. In this article the first thing that has been studied is in whose hands has resided the power of decision insofar as modern town planning has been developing. After that, the framework of the research conducted when sharing the power of decision with the citizens in town planning is described, and future lines of research are presented. What has been detected is that the relationship and ways of working that socio ecosystems comprising different languages have with the same territory are different. • **Key Words:** *Town planning, Spatial planning, Participation, Languages, complexity, Socio-ecosystems, political ecology, ecological sociology, ecological anthropology, gender in town planning.*

“Ser moderno, en cualquier campo de actividad que uno elija, es de este modo contingente a una conciencia crítica de la contemporaneidad, el “justo ahora” (del latín modo), como fuente de conocimiento práctico que puede ser utilizado para cambiar a mejorar el mundo, más que para continuar reforzando y reproduciendo fielmente el status quo.

En tanto conciencia crítica, lo que puede definirse como modernidad-en general es impulsado por dos preguntas clave. ¿De qué modo difiere la actualidad, lo que está sucediendo justo ahora, en este mundo y en este periodo de tiempo, del ayer? Asumiendo que existen algunas diferencias importantes, ¿cómo podemos utilizar el conocimiento de aquello que es nuevo y diferente para cambiar nuestro pensamiento y nuestras prácticas con el propósito de contribuir a un mundo mejor? En otras palabras ¿qué es significativamente nuevo y qué es lo que al respecto se debe hacer aquí y ahora?” (Soja, 2008:118)

Edwar Sojak dioen moduan, gaur egun gure lurralde eta hirien in-guruan erabakiak hartzea aztertu nahi badugu, modernoak izaki, au-rretik gertatutakoaren eta egun gertatzen denaren arteko aldeak ezagutu beharko ditugu. Horretarako hirigintza garaikedearen azterketa bat egin beharko da eta garai bakoitzean nork eta zergatik izan duen era-bakiak hartzeko boterea aztertu eta ulertu beharko dugu.

## ZER GERTATU ZEN ATZO GURE LURRALDEAN?

Mendebaldeko gizarte garaikide modernoa hiru dinamika sozio-antropologiko elkartzean sortu zen; indibidualismoa, arrazionaltasuna eta gizarte ezberdintasuna (Asher, 2001).

Indibidualtasunaren pentsamoldearekin, munduaren errepresentazioa ikuspegi kolektibotik egin ordez -talde mailatik- pertsona bakoitzaren ikuspegitik egitera pasa zen. Arrazionaltasunarekin ohitura eta tradizioen jakintza pixkanaka arrazoiarengatik ordezkaturia izan zen, eta gizarte desberdintzeak gizarteko taldekako funtzio bereizketa sortu zuen.

Erdi Aroan, Europan, hiru dinamika horiek elkartzean gizarte modernoaren sorrera ahalbidetu zen, eta horrela **lehen hirigintza iraultza** gertatu zen. Erlijioaren eta militarren botere eta pentsaeretatik eraikitako harresi barruko formak, errepikapen eta babesean oinarritutakoak, hautsi ziren. Sortu berri ziren hiri errenazentistetan hiria hazi egin zen, eskalaz handitu, harresiak hautsi eta kale estu eta ilunak hiribide zabal eta zuzenak bihurtu ziren; Erdi Aroko baratzeek lorategi aberatsei bide eman zieten, eta eskailera luze eta zabalek Estatuaren boterea azpimarratzeko erabili ziren.

---

**Erdi Aroan,  
Europan lehen  
hirigintza  
iraultza gertatu  
zen. Sortu berri  
ziren hiri  
errenazentistetan  
hiria hazi egin  
zen, eskalaz  
handitu,  
harresiak hautsi  
eta kale estu eta  
ilunak hiribide  
zabal eta zuzenak  
bihurtu ziren.**

---

**Bigarren  
hirigintza  
iraultza  
industrializazioa  
rekin batera  
gertatu zen.**

Forma tresna bezala harturik, eta funtzionaltasuna pentsamendutzat, hiria gizarte taldetan banatuz antolatu zen. Estatuaren boterea hiri antolaketa horretan islatu zen, botereak hiriaren antolaketa erabakitzeke gaitasuna zuen eta hiri berri horietan gizartearen kontrola sartu zen erabakitze kontzeptu moduan:

“ ... la ciudad ideal del renacimiento era primordialmente un vehículo para facilitar información al príncipe, y como extensión de ello era también un agente para el mantenimiento y la decorosa representación del Estado”.  
(Koetter eta Rowe, 1982)

**Bigarren hirigintza iraultza** industrializazioarekin batera gertatu zen. Hiri horietan pertsonen, informazioaren eta ondareen mugikortasunak garrantzia handia hartu zuen. Lehen gauza produkzioarako, kontsumorako eta merkatu trukeetarako hiriak egokitzea izaten zen (Asher, 2004).

Eraldaketa azkarra eta erabatekoa izan zen; hiriaren formak jada ez zuen mugarik. Erdi Aroan hiria mugatzen zuten harresiak eroriak ziren; hiri barnekoak ziren forma eta geometriak lurraldera zabaltzen hasi ziren. Produkzioaren beharrek hirien aglomerazioaren logika hartu zuten, eta modu horretan lurraldearen eraldatzeak ez zuen inongo oztoporik aurkitu.

Erakarle berriak industriak ziren, baita lurraldera lehenik iristen zirenak ere. Modu horretan ibai hertzetako lurrik hoberenak fabrikek hartu zituzten eta garaiko landa inguruko populazioa erakarri zuten bere inguruetara, langileentzako etxebizitzak bigarren mailako lurretan eraikiz. Euskal Herrian kasu askotan, behin ibai hertz lauak industriak harturik, langileen etxebizitzak malda eta malkarretan kokatu ziren.

Begiak banku gizonetan, industriak zuzentzen zituztenetan eta mekanikaren asmatzaileetan jarriak izan behar ziren, botere berri bat azaldu zen. Beraiek izan ziren garai honetan hiriaren eraikuntzaren arduradun nagusiak (Mundford, 1961).

Eraldaketa sakon eta azkar horien ondorioz sortu berri ziren hiringuru horietan arazo asko azaldu ziren. Aurreikuspenik gabeko hiritar gizartearen haziera azkarrak osasun eta garbitasun baldintza egokirik gabeko hiri inguruak sortu zituen. Mundfordek horrelako hiringuruei “ikatz hiri” izena eman zien.

Industriaren funtzionamendua hiri berri horien logiketan ezarri zen eta egoera horretatik sortu zen hirigintza modernoa. Segregazioa ezarri zen hiria eremuetan banatzeagatik, funtzioen araberako erabileratan antolatu zirelarik hiriak. 1933ko Atenasko karta dugu gai horien teoria ezarri zuena, ondoren 1942an Le Corbusier izan zen ideioak azken muturreraino eramane zituena gaur egun dugun egoeraraino iritsiz .

“Hay que revisar el principio de la circulación urbana y suburbana. Hay que efectuar una clasificación de las velocidades disponibles. La reforma de la zonificación que armonice las funciones claves de la ciudad creará entre éstas vínculos naturales para cuyo afianzamiento se preverá una red racional de grandes arterias.

La zonificación, teniendo en cuenta las funciones claves -habitar, trabajar y recrearse introducirá orden en el espacio urbano. La circulación, esa cuarta función, debe tener un único objetivo: poner a las otras tres en comunicación útil. Habrá que hacer inevitablemente grandes transformaciones. La ciudad y su región deben ser dotadas de una red exactamente proporcionada a los usos y a los fines, red que constituirá la técnica moderna de la circulación. Habrá que clasificar y diferenciar los medios de circulación y establecer para cada uno de ellos un cauce adecuado a la naturaleza misma de los vehículos utilizados. La circulación, as regulada, se convierte en una función normal que no impone dificultad alguna a la estructura de la vivienda o a la de los lugares de trabajo”. (Carta de Atenas, 1933)

## ZER GERTATZEN DA GAUR EGUN GURE LURRALDEAN?

I  
Gaur egungo errealitatea ikusirik zilegi da esatea gure lurraldeak makinaren erritmora pairatu duen eraldaketa sakon eta itzulgaitza Atenasko gutunak esaten dituen oinarrizko funtzioak asebetetzeko eginga izan dela soilik. Lurralde eta hirien inguruko erabakietatik kanpo geratu dira gure bizitzarako beharrezkoak ditugun beste funtzioak. Etxebizitza eta lantokiak antolatu egin dira, eta diruaren truke egiten den lana barririk hartu da kontuan; hau da, lan produktiboa. Bestalde, bizitzarako ezinbestekoa dugun lan erreproduktiboa alde batera utzi dugu. Horrela produkzio merkatuetatik kanpo geratzen diren bizitzako beste funtzioetarako egokiak ez diren inguruak sortu ditugu, batez ere gure bizitzako zaintza eta oinarrizko bizi eginkizunak ahaztuak izan dira.

Atenaseko Gutun honetatik atera ziren hirigintza tekniko eta arrazionalen oinarrizko eginiko promesak, bizitza berri egokiagoa eraikiko zutela esaten zuten promesak. Baina horiek ez dira bete, eta horrek, Harveyk dioen bezala, hirigintza modernoan mesfidantza sortu digu:

“La pérdida de fe en la planificación urbana racional tiene que ver, en primer lugar, con el hecho de que buena parte de aquellas propuestas fracasaron a la hora de cumplir sus promesas. Se basaban en la falsa premisa de que la transformación de las formas espaciales y del entorno constructivo podía ser un medio eficaz para solucionar problema sociales.” (Harvey 2007: 26)

---

***Produkzioaren beharrek hirien aglomerazioaren logika hartu zuten, eta modu horretan lurraldearen eraldatzeak ez zuten inongo oztoporik aurkitu.***

***Industriaren funtzionamendua hiri berri horien logiketan ezarri zen eta egoera horretatik sortu zen hirigintza modernoa.***

**Lurralde eta hirien inguruko erabakietatik kanpo geratu dira gure bizitzarako beharrezkoak ditugun beste funtzioak. Etxebizitza eta lantokiak antolatu egin dira, eta diruaren truke egiten den lana bakarrik hartu da kontuan; hau da, lan produktiboa. Bizitzarako ezinbestekoa dugun lan erreproduktiboa alde batera utzi dugu.**

Bizitza modernoan indibidualismotik, arrazionaltasunetik eta ezberdintasun sozialetik jaiokoak, gure lurralde, herri, hiri eta inguruak kontrolatu ditugu. Ustezko kontrol hau hirigintza modernoak geometrian eta formetan oinarriturik egin du. Horrela, giza bizitza mekanikoa helburu duen indibidualismora, arrazionaltasunera eta banaketa sozialera iritsi gara. Hori guztia diruaren kapitalak ezartzen dituen politikek zuzendurik egin dugu, lurraldearen kapitalaren galera handia eraginez.

“El capital dinero se expande sin control, y se aposenta cada vez más en el territorio como soporte de valor que lo catapulta hacia el “infinito”, mientras que el llamado “capital natural” no hace sino menguar.” (Fernandez Duran, 2006:6)

Hirigintza eredu hori mundu guztira zabaldu da globalizazioaren bidez, eta mundu osoan paisaia berdinak sortzen ari gara. Sortutako paisaia uniforme horiek kapitalak hirigintza eta lurralde antolaketa bere sistema produktiboaren beste tresna batzuk bezala erabili izana erakusten digu, “ikatz hirian” fabrikek egin zuten modura:

“...quizás podamos entender ahora mejor como ciudades con historia y cultura diferentes y localizadas en lugares diversos están produciendo un tipo de paisaje estandarizado y común. Aparece así un tipo de urbanización banal del territorio, en tanto en cuanto los elementos que se conjugan para da lugar a un paisaje concreto pueden ser repetidos y replicados en lugares muy distantes tanto geográfica como económicamente. La urbanización se refiere, así pues, a como el paisaje de la ciudad se tematiza, a cómo, a la manera de los parques temáticos, fragmentos de ciudades son actualmente reproducidos, replicados, clonados en otras. El paisaje, sometido así a las reglas de lo urbano, acaba por no pertenecer ni a la ciudad ni a lo urbano, sin más cometido que formar parte de la cadena global de imágenes ...” (Muñoz, 2008:51-52)

Hirigintzan eta lurralde antolaketan erabakiak hartzeko gaitasuna duten botereen logikek lurraldea bere baitan ikusteari utzi diote. Kontsumitu eta lantokitik etxera joateaz gain, beste zerbait egiten duten pertsonen beharrak ez dira kontutan izan, beraz Hirugarren hirigintza-aren iraultzarako (Asher, 2004) bide berriak ireki beharko dira. Beti ere gure lurraldearen zentzu ekosistemikoa berreskuratu eta modu horretan gure sozioekosistemen<sup>1</sup> dinamiketan oreka bilatu nahi badugu.

Aldaketa hori ezin izango da egin erabakitze politikan aldaketarik egin gabe; elkarrekin erabakitzean, parte hartzean eta komunitatearekin eginiko analisi hausnarketa eta proposamenetatik gure inguruak eraldatzeko ezagutza eta jakintza jaso beharko dugu.

## **NONDIK IKERTU DIRA LURRALDEA ETA GIZARTEAREN ARTEKO ERLAZIOAK?**

**I**

Indibidualismora, arrazionaltasunera eta banaketa sozialera iritsi gara kapital ekonomikoaren botere politikoek zuzendurik. Bide horretan, lurraldea bizitzaren oinarri bezala ulertzeari uko egin diogu. Ulermen hori berreskuratu nahi badugu aurrez aipaturiko hiru oinarritzko dinamikei buelta eman beharko zaie, eta hori talde lanetik, irrazionaltasunetik eta berdintasun sozialetik pentsatu eta lan eginez bakarrik lortu ahal izango dugu.

Bide honetan ikertzeko:

“lo mejor que podemos hacer es investigar selectivamente, del modo más sutil posible, la infinita complejidad de la vida a través de sus dimensiones espaciales, sociales e históricas intrínsecas, y de su espacialidad, sociabilidad e historicidad interrelacionadas.” (Soja, 2008:41)

### **Pentsaera sistemikoa eta konplexutasuna**

Testuinguru horretan, Zaldibarko Hirigintza Araudiaren Plan Orokorra (ZHAPO) idazteko parte-hartze prozesua ikerketa parte hartzailea bilakatu da. Ikerketa horrek pentsamendu sistemikoa oinarri hartu da eta ikergunea Zaldibarko herria izan da, sistema ireki ertain modura ulertuta. Sistema horrek, jakina, azpisistema anitz biltzen ditu bere barnean eta, aldi berean, bera ere sistema handiago anitzen parte da.

Ikerketak Edgar Morinek (1990) garatutako sistemen teoriaran oinarrituta dago, eta pentsamendu konplexua onartu da lanerako bide bezala. Horrela, ikerketaren gunean ez da oinarritzko unitate diskretu bat jarri, unitate konplexu bat baizik; “osotasuna” ikertuko da, izan ere, hau ez baita soilik bera eratzten duten unitate bakanen “batura”. “Osotasun” honetan murgilduko gara beraz.

Ikuspuntu sistemikoa eta hein handi batean pentsaera konplexuaren gainean Morinek eginiko lan guztia ezinbesteko gaia izan da gizartea eta lurraldearen arteko harremanen epistemologia berri bat osatzeko. Sinplifikazio kartesianoarraren paradigmek zientzia zatikatu eta banandu baten betirakotasunera eramán gaituzte. Alabaina, gure pentsamenduaren ardatza, modernitate eta postmodernitate honetan, disjuntzio, murrizpen eta abstrakzio oinarriak izan dira nagusi. (Morin, 1990)

### **Antropologia eta ekologia politikoa**

Lurraldearen azterketarako ikerketa parte-hartzaile bat gauzatu da, bertako biztanleek lurraldearekin izan zuten, duten eta izan nahi duten harremana ezagutu nahirik. Horretarako ezinbestekoa izan da, kultura

---

***Ikuspuntu  
sistemikoa eta  
hein handi  
batean pentsaera  
konplexuaren  
gainean Morinek  
eginiko lan  
guztia  
ezinbesteko gaia  
izan da gizartea  
eta lurraldearen  
arteko  
harremanen  
epistemologia  
berri bat  
osatzeko.***

**Bizi dugun aro global honetan, ekologia politikoak aipatzen du maila globalean kapitala, espazioa eta historia topatzen ditugula. Lana, ohiturak eta lurrarekin interakzioa, aldiz, tokian aurkitzen ditugula.**

aztertuz, antropologiaren bidetik eginiko gerturatzea. Modu horretan, eta Boasek esaten digun bezala, behin oinarritzko biziraupenerako beharrak ase ondoren, garai historiko bakoitzean gizarteak lurraldearekin izan dituen interakzioak begiratu beharko dira. Aldaketa horiek gauzatzean, gizarteak zein ikuspuntu zuen ikusi beharko dugu.

Bizi dugun aro global honetan, ekologia politikoak (Escobar, 2000) aipatzen du maila globalean kapitala, espazioa eta historia topatzen ditugula. Lana, ohiturak eta lurrarekin interakzioa, aldiz, tokian aurkitzen ditugula. Horrela ezagutza garatzeko orduan tokiaren eta bertako esperientzien arteko harremana berrikusi beharko dugu.

Tokian tokiko habitatari buruzko pertzepzioak ulertzeko orduan, bertako biztanleek izandako bizi esperientziatik begiratuko dira. Inguaruarekin izandako harremana ikusi eta denbora berdinean Edward Soja (2013) proposatzen duen “Thirdspace” delakoan bilatuko dugu.

“En dicha perspectiva alternativa o “tercera”, la especificidad espacial del urbanismo es investigada como un espacio enteramente vivido, un lugar simultáneamente real e imaginario, actual y virtual, lugar de experiencia y agencia estructuradas, individuales y colectivas.” (Soja, 2008:40)

Izandako esperientziak tokiarekin izaniko ekintza esperientzia fisikoen, hau da, bizitzako ekintza esperientzia pertsonaletan oinarritu gara, Tim Ingoldek (2000) esaten duen bezala, norberak bere modura ulertzen baititu tokiak, bertan egiten duen ekintzen arabera. Esate baterako, desberdina izango da ardiak dituen zelai bat ikustean artzaiak berak duen ikuspuntua edo autobidetik pasaeran bere autoaren barnean hirian bizi den pertsona batek duen ikuspuntua. Lurraldearekiko dugun esperientziak sortuko digu bera ikusteko modua.

Antropologia ekologikotik eta Miltonek (1997) esaten duen bezala, “osotasunean” murgildu beharko gara eta berarekin bat egin, ezagutza antropologikoa ingurugiroaren arazoetan aztertuz. Hemendik kultura aniztasunaren babesa bultzatuko da, ezberdintasun kulturala biodibertsitatea bezain garrantzitsua izan baitaiteke gure espeziearen etorkizuna bermatzerako orduan. Eginiko ikerketan, ikuspuntu horiek aztertzerakoan, eta Euskal Herrian egonik, bertan ditugun hizkuntza ezberdinek lurraldearekin izandako harremanak zehazki begiratzen saiatu gara.

## **Genero ikuspuntua**

Valcuendek kultura eta naturaren arteko harremanetan eta HARRISEK proposatzen duen Materialismo kulturala aztertzean, ondorengo banaketa proposatzen du:

“La cultura es entendida como un proceso de respuesta, algunos críticos dirían que de respuesta mecánica, a los condicionantes de la producción (tecnologías de subsistencia, relaciones tecno-ambientales, ecosistemas, pautas de trabajo) y de la reproducción (demografía, fecundidad, natalidad y mortalidad, crianza de los niños, control médico de las pautas demográficas, anticoncepción, aborto, infanticidio).” (Valcuende, 2003)

Modu horretan bizitzako eginkizunetan, produkzioan beraz, diruari lotutako funtzioak eta eginbeharrak topatzen ditugu, lan produktiboa bezala adierazten direnak. Bestalde, bizitzari, zainketei eta eguneroko bizitzaren osasunari eta elikadurari oinarri ematen dioten lanak ditugu, diruz ordaintzen ez direnak, eta lan erreproduktiboa bezala adierazten direnak.

Kulturalki gaurdaino bi lan mota horiek, gizon eta emakumeen rolek berezituak izan dira: lana eta genero lotura egin da, lan produktiboan gizonak egin izan duen lana kokatu delarik, eta lan erreproduktiboan emakumeak egin izan duena. Bizitza produktibo edo erreproduktiboak izateak bizi dugun ingurunearen eraldaketa beharren inguruan ikuspuntu ezberdinak edukitzera eramaten gaituzte. Historian zehar ikuspuntu horiek erabakitzaileak izan dira.

Azkenaldian gure inguruan gertatu diren eraldaketa handienak bizitza produktiboa bultzatzeko helburuarekin izan dira. Eraldaketa horiek zaintza lanak zaildu dituzte, eta bizitza erreproduktiboak dituen beharrak lurraldearen inguruko erabaki hartzetik kanporatuak izan dira. Lan erreproduktiborako, zaintza lanetarako adibidez, egokiak ez diren inguruak sortu ditugu.

Hirigintza eta lurralde antolaketan erabakiak hartzerakoan ezinbestekoa izango da, beraz, faktore produktiboak eta erreproduktiboak maila berdinean kontutan izatea. Eguneroko bizitzari behar duen balioa emango zaio eta genero ikuspuntua txertatuko da inguruari egingo zaion begiradan eta, ondorioz, baita bertako lanetan erabiliko den pentsaeran ere. (Borja eta Muxí, 2000) (Sanchez Madariaga, 2004)

## **Soziologia Ekologikoa**

Gure habitatetan osatzen diren sozio-ekosistemen azterketarako eta horien arteko harremanak ulertzeko soziologia ekologikotik Tabarak (2003) proposatzen duen SEIC modeloaren oinarriak erabili dira. Modelo horrek sistema sozio-ekologikoak eta horien arteko erlazioak modu konplexuan ikusten ditu, eta ikerketari ikuspuntu sistemikoa ematen dio. Harremanetan oinarritzen diren azpisistema eta sistema sozio-ekologikoen erlazioak ulertzen laguntzen digu.

---

***Azkenaldian gure inguruan gertatu diren eraldaketa handienak bizitza produktiboa bultzatzeko helburuarekin izan dira. Eraldaketa horiek zaintza lanak zaildu dituzte, eta bizitza erreproduktiboak dituen beharrak lurraldearen inguruko erabaki hartzetik kanporatuak izan dira.***



**Hirigintza eta  
lurralde  
antolaketan  
erabakiak  
hartzerakoan  
ezinbestekoa  
izango da, beraz,  
faktore  
produktiboak eta  
erreproduktiboak  
maila berdinean  
kontutan izatea.**

SEIC modeloaren arabera sozio-ekosistema oro elkarrekin harremanetan dauden lau azpisisistemek osatzen dute:

— **S. azpisisistema: Gizartearen egitura.** Gizartea osatzen duten agenteen akzioak eta jokaerak erregulatzen dituzten giza instituzioak: familia, merkatuaren erregulazioak, jabetza erregimenak, hauteskunde sistemak, hezkuntza sistema eta abar.

— **E. azpisisistema: Energia jasotzen du,** eta bizi mota eta sistema guztiak, bai gizarte zehatz batek erabiltzen dituen eta eskura dauzkan errekurtsu forma natural guztiak.

— **I. azpisisistema:** Gizarte batek bere baitan eskuragarri dituen edoeta erabiltzen dituen **jakintzarako eta informaziorako sistema eta forma sinboliko guztiak dira.**

— **C. azpisisistema:** Aldaketa sistemikoa, sistema sozio ekologikoaren barnean, energiaren eta informazioaren erabilera eta kontsumoaren ondorioz gertatzen direnak dira. Aldaketa horiek atzera bueltarik gabekoak izan oi dira, eta zenbaitetan ingurugiroaren **degradazio edo kutsadura** bezala definituak izaten dira.

Osagai horiez gain, garrantzitsua da sistema sozio-ekologikoen tamaina, eta hori azpisisistema ezberdinetan zein bakoitzaren barnean daudenen arteko erlazioen, intentsitate eta denbora eskalaren arabera izaten da.

Sistema handiek elkar ekintza asko dituzte eta elementu desberdinen arteko erlazio ugari denbora gutxian. Horrek energia eta informazio kontsumo handiak eskatzen ditu eta aldi berean kutsadura gaitasun handia izaten dute. Tamaina hori ez da fisikoa baizik eta ekintza kopuruaren arabera, modu horretan, fisikoki txikiak diren sistemak topa ditzakegu baina energia kontsumo handia eskatzen dutenak eta kutsadura handia sortzen dutenak. Bestalde, azpimarratzekoa da, tamaina desberdineko sistemen arteko harremana, hau da, sistema handiek txikiak erakartzen dituzte eta bereganatzeko gaitasun eta erraztasuna dute.

Orokorrean, bi sistema sozioekologikoren artean, lehen mailako harremanak I azpisisisteman gertatzen dira (informazioa, hizkuntza). Ondoren, E azpisisistema dator, eta bertan energia kontsumoak erlazionatzen dira, ondorioz, C azpisisistema erlazionatzen da (kutsadura). Azkenik, S azpisisistema, gizarte egitura, erlazionatzen da. Horregatik, sistemen arteko harremanetan, gizarte aldaketak azkenak gertatzen dira. Horregatik, sistemaren gizarte egitura beste sistema baten barruan dagoela oharitzen denerako beranduegi izan ohi da, gizarte eraldaketetatik, kontsumo

eta kutsadura dinamikak ekiditeko.

Konplexutasuna oinarri duen modelo honek sistema sozioekologikoaren sinplifikazio bat egiten du, ezinbestekoa, sistema horien dinamika konplexuak nolabait ulertu ahal izateko.

## **ZER IKERTU DA ETA ZEIN IZAN DIRA HELBURUAK ETA LAN HIPOTESIA?**

**I**

Parte-hartze metodoak, Hirigintza Araudiaren Plan Orokor (HAPO) baten diagnostikoa idazteko prozesu bezala, eguneroko bizitzaren konplexutasuna eta ikuspuntu sistemikoa jakintza bezala erabiltzen laguntzen du. Hau izan da lanerako erabili den hipotesia, berau honako lan hipotesi orokorrako batetik eratorria da: parte hartzean oinarritzen diren hirigintza planek, gizarte eta naturaren arteko harreman orekatuagoak sortzen dituzte.

Ikerketa honetan ezarri diren helburuak, HAPOaren diagnosia idazteaz gain, konplexutasuna eta sistemen teoria hirigintzan ezartzea da, eta baita, gizartea indartzea elkarrekin erabakiak hartzeko, demokrazia parte-hartzaile baterako aldaketa politikoa gauzatze bidean. Horrez gain, parte-hartze prozesuan hartutako erabakien legitimitatea bermatu nahi izan da, eta HAPO baten diagnosi parte hartzailea egitea diagnosi teknikoarekin batera.

Ikerketa honetan Zaldibarko HAPOaren diagnosiaren idazte prozesua aztertu da, 2013ko otsailetik 2013ko urria bitartean. Diagnosi honetarako lan taldearen osaketa zabalak izan da. Bertan izan dira, hirigintzan adituak diren arkitektoez gain, parte-hartze prozesuetan adituak direnak, ingurumen zientzietan lizentziatuak, zuzenbidean lizentziatuak, ekonomialariak, geografoak, enpresariak, antropologoak, bide ingeniariak eta arte ederretan lizentziatuak, guztira 15 pertsonako lan taldea osatuz.

Talde honek hiru oinarri ezarri ditu lana gauzatzeko:

1. Diziplina arteko lana bere osotasunean ulertu da. Eratzen den dokumentu oro diziplina arteko lanetik egingo da, eta dokumentuak ez dira izango diziplina bakoitzean eginiko dokumentu anitzen batura.
2. Lan taldeko kideak bakoitza bere gaietan aditua izateaz gain, parte-hartze prozesuetan interesa eta esperientzia erakusgarria izango du.
3. Jasangarritasunerantz eta integrazio sozialerako bidean lan egingo

---

***Parte hartzean oinarritzen diren hirigintza planek, gizarte eta naturaren arteko harreman orekatuagoak sortzen dituzte.***

**Prozesua gizarte osora ireki haurretik Zaldibarko gizartearen analisi soziala egin da. Modu horretan gizartearen egitura ulertu ahal izan da eta bertako taldeek inguruarekin dituzten harreman mota ugariak berezi nahi izan dira, ondoren hasiko den parte-hartze prozesuan kide izan daitezen.**

da, hirigintza barneratzailea eta genero ikuspuntuarekin, aztarna ekologikotik, lurraldearen kapitalaren baliotik, paisaiatik edo ekonomia berdetik.

Diagnosiaren idazte prozesuan, lan teknikoa eta parte hartzearen lana elkar banatzen joan da, eta bi jakintzen uztarketatik ateratako jakintzatik idatzi da diagnosia, “zientzia postnormala” bilatuz (Funtowicz eta Ravetz, 2000). Teknikoek herritarrengandik jasotako informazioarekin osatu eta zabaldu dute beren jakintza, eta herritarrek, teknikoek azterketak ezagutuz eta eguneroko bizitzako bizipenetatik sortutako hausnarketak kontuan hartuta, elkarrekin adostutako iritziak diagnosira ekarri dituzte.

## IKERKETAREN METODOLOGIA

Ikerketaren metodologia Ikerketa Akzio Parte Hartzailean oinarritua izan da. Zaldibarko HAPOAren idazketa egiteko egungo hirigintza eta lur antolamendurako araudiak ezartzen dituen epeak errespetatu dira. Idatzi beharreko dokumentuei egokitutako parte-hartze prozesua diseinatu da. Ikerketa honetan diagnostikoaren lehen zatia aztertu da eta berau 2005ean modu tradizionalan herri berdinean eginiko diagnostikoarekin konparatu da.

Ikerketa honetan aztertu den gizartearen jakintza jaso nahi izan da. Azterketa antropologiko baten ondoren, Ikerketa Akzio Parte-hartzaile bidezko jakintza sorrera proposatu da. Bide horretan “zientzia popular” batetik erabakiak hartzea sailhestu da. Bilatu den pentsaera ez da izan herriak duena bere ohituretan oinarritua, ezta ere teknikoena beren jakintza akademikoetan oinarriturik dutena. Horrela akademiak eskaintzen duen zehaztasunarekin herritarrek duten ikuspuntutik pentsatzeko konpromisoa hartu da. (Villasante, 1993)

Prozesua gizarte osora ireki haurretik Zaldibarko gizartearen analisi soziala egin da. Modu horretan gizartearen egitura ulertu ahal izan da eta bertako taldeek inguruarekin dituzten harreman mota ugariak berezi nahi izan dira, ondoren hasiko den parte-hartze prozesuan kide izan daitezen. Honetarako Zaldibarko etnografia moduko bat egin da perfil ezberdinetako 20 pertsona elkarrizketatuz. Lehenik, bederatzi pertsonako taldea osatu da udalean ordezkaturik dauden talde politikoetako zinegotzi bakoitzak pertsona bat aurkeztuz. Egite modu horrekin, herriko ikuspuntu anitzetako jendea elkarrizketatzeaz gain, udaleko lau talde politikoek prozesuarekiko konfiantza lortu da. Ondorengo hamaika pertsona lehen taldekoen bidez eta herrian hilabetez bizitzean izandako

ezagutzaren bidetik etorri dira. Sexua, adina, bizitokia, lan egoera eta hizkuntza egoera begiratu dira bereziki pertsona horiek aukeratzeko.

Eginiko elkarrizketetan Zaldibarko garai ezberdinetako planoak erabili dira euskarri moduan, eta garai bakoitzean elkarrizketatuak bere inguruarekin izan dituen harremanak aztertu dira: kontsumo ohiturak, produkzio tokiak, ur hornidura, zainketa tokiak eta moduak, giza harremanak eta abar. Modu horretan herriaren garapen fisikoan bertako biztanleek izandako esperientziak txertatu dira. Usteak, beldurrak, pertzepzioak, intuizioak, nahiak eta desirak, pentsamolde desberdinak eta ikuspuntu anitz jaso dira jakintza bezala, azterketaren oinarri izan den lurralde bakar batean.

Parte-hartze prozesuan hainbat lan tailer egin dira fase ezberdinetan antolaturik. Lan tailerretan talde lan kontzeptuak landu dira eta, ondoren, elkarrekin lotuak diren hiru gai nagusitan egin da lan; hirigintza prozesuak, ingurugiroaren prozesuak eta prozesu sozioekonomikoak.

Landutako gai guztietan aurre-diagnosi teknikitik ateratako ondorioak azaldu zaizkie partaideei eta bertatik abiatuta iritzi guztiak entzutea landu da, banakako eta taldekako hausnarketak eta dinamika parte-hartzaile ezberdinekin egungo Zaldibarrek dituen arazo eta onurak azalarazi dira.

## ONDORIOAK

### I

Parte hartzea, errealitatearen konplexutasuna eta aniztasuna aurrez aurre begiratzeko modua da. Horregatik parte-hartze prozesuek, prozesu luze eta konplexu bezala ulertu behar ditugu. Parte hartzea ezin da azkarra eta erraza den zerbait bezala ulertu, erabakiak hartzeko orduan erabakiak sistemaren aldaketa bat ekartzen du, eta gizartearen iritzi, esperientzia, nahi eta behar anitzak uztartzeko bide bezala ulertu behar da. Aterako den emaitza askoz ere egokiagoa izango da, eta, batez ere, prozesuan bertan partaideen balore sisteman aldaketak ekarriko ditu.

Zaldibarko kasuan, gizartearekin lanean, udalerrri honek duen lurralde antolaketa moduagatik eta baita bertan antzeman diren 3 hizkuntza nagusiegatik, lurraldearen zonalde desberdinetan hizkuntza ezberdineko gizarteak alderatu dira. Hizkuntzaren arabera banatutako sozio ekosistema ezberdinak topatu dira, energia kontsumo, kutsadura eta gizarte antolaketa modu ezberdinekin.

Hastapeneko ideia hau hobeto ulertzeko Tabarak proposatzen duen SEIC modulua erabiliz, sozio ekosistemak nola komunikatzen diren, zer eta zenbat kontsumitzen duten, nolako hondakinak sortzen dituzten

---

**Parte hartzea, errealitatearen konplexutasuna eta aniztasuna aurrez aurre begiratzeko modua da.**

**Idea hau garatzeke eta sakonean lantzeke dago oraindik, baina hasierako ideia ondorengoa da: hizkuntza bakoitzak bizitzeko modelo, kontsumorako modelo eta azkenik lurraldea ulertzeko ikuspuntu propioa duela, eta baita bere baitako gizarte antolaketa propioa ere.**

***Euskara, gaztelania eta ingelesa dira zaldibarren bereiztu diren sozio ekosistemen hizkuntzak, eta horien arabera gizartearen antolaketa eta lurraldearekiko ikuspuntua begiratu dira. Horrela, euskara landa inguruan kokatu da, lurraldearekiko lotura handiarekin eta lurraren zuzeneko ustiaketaekin.***

eta zein antolaketa modu dituzten jartzen dira harremanetan. Sozio ekosistema guztietan lau azpi-sistema horiek harremanetan daude, eta sozio ekosistemen arteko bizitzeko moduak lau elementu horien bidez jartzen dira harremanetan..

Tabarak SEIC modeloarekin azaltzen digu gizartea modu ekosistemikoaan ulertzeko era. Sintetikoki azalduz, modelo honek dioenez, gizarte oro elkarrekin harreman zuzena duten azpi-sistema bidez aztertu daiteke; 1) informazio moduak, hizkuntza kasu honetan, 2) kontsumo maila, 3) sortzen diren hondakinak, kutsadura, eta azkenik 4) gizartearen antolaketaren konplexutasuna. Zaldibarko kasuan eta hizkuntzaren arabera banatzen badugu gizartea 3 gizarte mota banatu ditzakegu, eta horietako bakoitzak Tabarak aipatzen digun beste 3 azpi sistemak begiratzu desberdintasun nabarmenak antzeman daitezke.

Idea hau garatzeke eta sakonean lantzeke dago oraindik, baina hasierako ideia ondorengoa da: hizkuntza bakoitzak bizitzeko modelo, kontsumorako modelo eta azkenik lurraldea ulertzeko ikuspuntu propioa duela, eta baita bere baitako gizarte antolaketa propioa ere:

Euskara, gaztelania eta ingelesa dira zaldibarren bereiztu diren sozio ekosistemen hizkuntzak, eta horien arabera gizartearen antolaketa eta lurraldearekiko ikuspuntua begiratu dira. Horrela, euskara landa inguruan kokatu da, lurraldearekiko lotura handiarekin eta lurraren zuzeneko ustiaketaekin. Oraindik lurraldea auzolanean eta taldean ustiatzeko antolaketak mantentzen dira eta horiek ez daude antolaketa araudi bati lotuta. Iturburak, bideen mantenua eta baso garbiketak dira mantentzen diren auzolanetako batzu. Kontsumoaren parte handi bat lantzen den landatik bertatik asetzen da eta bizitokietako ur zikinen, kutsaduraren, garbiketa banakakoa da.

Gaztelania hiri lurrean —edo zoru urbanoan— kokatzen da; lurraldearekiko lotura ez da guztiz zuzena, eta lurraldea aisialdirako erabiltzen da batez ere, nahiz eta batzuetan baratzeekin harreman zuzena izan. Antolaketa konplexuagoa da eta horretarako lege idatziak eta arautuak daude. Ur ornidaura eta ur zikinen garbiketa antolatua da.

Azkenik ingelesa. Hiri lur industrialean kokatzen da eta internetekin lotua. Bere oinarria produkzioan du, eta harreman internazionalak eta komertzialak gauzatzen ditu sozio-ekosistema honek. Lurraldearekin oso hartu eman gutxi du, lurraldea komertziorako azpiegiturak jasoko dituen ingurua bezala ulertzen da. Hirugarren sozio-ekosistema honek antolaketa konplexua eta aldakorra du, bai araudi aldetik eta baita komertzio egituraren aldetik ere.

Oso hasierako azterketa aurkezten da artikulu honetan, baina lu-

rraldea ulertzeko hainbat balore sistema antzeman daiteke hizkuntzari lotuak. Bizimodu eta lurraldearekiko harremana ezberdinak antzematen dira, eta etorkizuneko lurraldea konplexutasunetik aztertu eta antolatu nahi bada, kontutan izan beharreko beste aspektuez gain, hizkuntza sistemek lurraldearekiko duten harreman mota aztertu beharko da. Honela, jakintza eta ezagutza ezberdinak kontuan hartu beharko dira, eta etorkizuneko antolaketa sozio ekosistema ezberdinek dituzten perzeptzioak kontutan izan beharko dira.

Adibide honekin gure lurraldearen inguruko erabakiak hartzeko orduan jakintza tekniko soilik erabiltzeak dakartzan arazoak erakutsi nahi izan dira. Aurkeztu den ikerketatik, hizkuntza ezberdinekin lotutako sozio ekosistemek balore ezberdinetatik kudeatzen dutela lurraldea, antzeman da. Etorkizuneko lanerako bide egokiago batean, gure jakintza teknikoaz gain, kontutan izan beharko dugu gure esperientzia, gure usteak, sentsazioak, afektibitateak, gizartearen aniztasuna eta konplexutasuna, eta hauekiko gure lurraldean dauden hizkuntzek osatzen dituzten sozio ekosistemek dituzten perzeptzioa ezberdinak. Aniztasun hauek gure pentsaera eta erabakietan txertatu beharko ditugu, ikuspuntu honetatik bizitza egokiago, errespetagarriago eta parekideago baterako bidea hartu dezakegu, lurralde berriak amesteaz gain gauzatzea ere posible delako modu berri eta zentzudunagoetatik.

## ETORKIZUNEKO IKERKETARAKO LAN LERROAK?

I

Lan prozesuaren amaieran ikerketa honen hasierako helburu eta hipotesietatik dezente aldendu den gaia topatu da. Hizkuntzaren inguruan antolatzen diren sozio-ekosistema bakoitzak lurraldea modu ezberdinean ulertzen duela, sozio ekosistema bakoitzak bere modura bizi du eta modu ezberdinean kudeatzen du lurraldea.

Ikerketarako gai berri honek dudarik gabe hainbat diziplinaren elkarlana beharko du eta hori bultzatze bidean idatzi da artikulu hau. Soziolinguistika eta lurraldearen antolaketan, beste hainbat gaitan bezala, elkarlan bideak eraiki beharko ditugu. Lan honetan etorkizunari begira ikerketa zabal dezaketen ideia batzuen taula aurkezten da ondoren. ●

---

***Gaztelania hiri lurrean -edo zoru urbanoan- kokatzen da; lurraldearekiko lotura ez da guztiz zuzena, eta lurraldea aisialdirako erabiltzen da batez ere, naiz eta baratzekin harreman zuzena izan.***

***Azkenik ingelesa. Hiri lur industrialean kokatzen da eta internetekin lotua.***

	sistemaren tamaina	lur eremua	gizartearen antolaketa	uraren kudeaketa	ur zikinen kudeaketa	lurraldean egiten diren ekintza mota	lurralderekin lotura	lurralde antolaketa eragina	kutsadura gaitasuna	lurraldearen dinamiken ezagutza
euskara	txikia	landa lurra	auzoka antolaketa ez erregulatua	auzolaneke iturburuaren kudeaketa eta bailarako ur hornidura	bakarkakoa	zuzeneko ekintzak bere kudeaketan	handia	eskasa, zerbait landa lurrean	txikia	handia
erdara	handia	hiri lurra	osoko eta taldekako antolaketa erregulatua	bailarako ur hornidura	herriko estolderia	aisialdiko erabilera eta kasuren baten zuzenean eragina, baratzeak	ertaina, ikusle moduan	hiri lurrean soilik	ertaina	eskasa
ingelera	globala	hiri lur industrialia eta espazio birtuala	erregulatze lokala eta globala.	bailarako ur hornidura	herriko estolderia eta kasuka tratamendu bereziko ur garbitzeak	lurraldea garraiobide gisa, zuzeneko hartu emanik ez.	oso eskasa	azpiegituretan handietan, lehen mailakoa	handia	oso urria

1. Jasangarrtasun zientziek gizarte eta naturaren hartu emanak elkarlotzeko beharretik sortu da sozio-ekosistema terminoa. Sozio-ekosistema batean gizarte sistema eta natur sistema elkarturik ulertzen dira, bata bestean eragina izanez. Giza banakoen zein giza taldeen akzioek eragina dute natur sisteman eta modu berdinean natur sistemak kulturalki definitzen gaituzte eta bertan gertatzen diren aldaketek gure bizimoduan eragin zuzena dute.

## BIBLIOGRAFIA

- Asher, F. (2004). "Los nuevos principios del urbanismo". Alianza ensayo. Madrid.
- Borja, J., Muxí, Z. (2000). *El espacio público, ciudad y ciudadanía*. Barcelona <http://es.scribd.com/doc/52778300/BORJA-El-espacio-publico-ciudad-y-ciudadania>
- Carta de Atenas (1933). <http://www-etsav.upc.es/personals/monclus/cursos/CartaAtenas.htm>
- Escobar, A. (2000). *El lugar de la naturaleza y la naturaleza del lugar: ¿globalización o postdesarrollo?* Buenos Aires, Argentina: CLACSO, 2000.
- Fernández Durán, R. (2006). *El Tsunami urbanizador español y mundial*. Virus. Madrid.
- Funtowicz, S. O., Ravetz, J. (2000). *La ciencia posnormal, ciencia con la*

- gente. Icaria Ediciones, Antrazyt Ecología, Barcelona.
- Harvey, D. (2007). *Urbanismo y desigualdad social* (7a ed.) Siglo XXI.
- Ingold, T. (2000). *The perception of the environment*. London, Routledge. Pp. 157-171.
- Koetter, F., Rowe. C. (1982) (ed. 1998). "Ciudad collage" GG Reprints. Barcelona.
- Mumford, Lewis (1961). "La ciudad en la historia", London.
- Milton, Kay (1997). "Ecologías: antropología, cultura y entorno". *Revista internacional de Ciencias Sociales*, 154:86-1145.
- Muñoz, F. (2008). *Urbanalizaciones. Paisajes comunes, lugares globales*. Gustavo Gili SL. Barcelona.
- Morin, E. (1990). *Introducción al pensamiento complejo*. (10ª reimpresión 2011). Editorial Gedisa.
- Soja, E. (2008): *Postmetrópolis Estudios críticos sobre las ciudades y las regiones*. Traficantes de sueños. Madrid.
- Sánchez Madariaga, I. (2004). *Urbanismo con perspectiva de género*. Unidad de Igualdad y Género. Junta de Andalucía.
- Tàbara, D. J. (2003). "Teoría Socioambiental y sociología ecológica", en Salvador Giner, *Teoría Sociológica Moderna*. Madrid: Ariel. p.431-458.
- Valcuende del Rio, J. M. (2003). "Cultura, patrimonio y medio ambiente: Planteamientos teóricos." Memoria Titularidad. Sevilla. Capítulo I. Naturaleza y cultura: una aproximación al debate antropológico. Capítulo II. El debate cultura/naturaleza: nuevas aportaciones.
- Villasante, T.R. (1993). "Aportaciones básicas de la IAP a la Epistemología y a la Metodología", *Documentación Social* nº 92, Madrid.